

Euskarazko telesailen produkzioaren uzta eta mugen zertzelada XXI. mendean: *Goenkale* saioaren kasu- azterketa

Idoia Astigarraga Agirre
Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Euskarazko telebistako fikzio seriatuaren produkzioak ezaugarri zehatz batzuk ditu eta baldintza objektibo batzuei egin behar die aurre. Ezaugarri eta baldintza horiek zeintzuk diren identifikatzea da artikulu honetan azaltzen den ikerketaren jomuga. Horretarako, ikerlanak bi norabide izan ditu: batetik, 2000-2009 hamarkadako telebistako euskarazko fikzio seriatuaren produkzioa baldintzatzen eta mugatzen duten elementu nagusiak identifikatu dira; bestetik, identifikatutako muga horien barruan, *Goenkale* saioa zelan ekoizten den aztertu da.

GAKO-HITZAK: Euskal Telebista · Fikzio seriatua · Produkzioa · *Goenkale*.

The production of television drama series in Basque in the 21st Century: outcomes and limits. The case of *Goenkale*

The production of television series in Basque has specific characteristics and objective limits that are unavoidable when developing any television drama project. This article summarizes the research done to identify the aforementioned characteristics and limits. The research was performed in two steps: firstly, we identified the key elements that shaped and limited the production of series in Basque in the decade 2000-2009; and secondly, we studied the production of the soap opera *Goenkale* to unravel the intricacies of its production within the limits identified.

KEY WORDS: Basque Television · Television drama · Production · *Goenkale*.

Jasotze-data: 2011-05-12. *Onartze-data:* 2011-06-17.

O. Sarrera

Gaur egungo telebistaren eskaintzak eta berau kontsumitzeko moduak zuzenean eragiten diote saioen produkzioari. Globalizazio-aro honetan, faktore horiek orokorrak dira eta euskarazko telesailak ere baldintzatzen dituzte. Haatik, euskarazko produkzioak eta eskaintzak baditu ezaugarri berezi batzuk. Ezaugarri horietan eragiten duten faktore nagusien identifikaziorako estreinako hurbilketa egitea da artikulu honetan azaltzen den ikerlanaren asmoa.

Horretarako, lehen helburu bezala, euskarazko fikzio seriatuaren produkzioak XXI. mendeko lehen hamarkadan izan dituen mugak zeintzuk diren —eta zein neurritakoak— identifikatu da; eta bigarren helburua, kasu-azterketaren bidez, *Goenkale* fikziozko saioari erreparatzea da, muga horien barruan saio zehatz hau zelan ekoitzi den (eta ekoizten jarraitzen den) ezagutzeko.

Goenkale saioak XVIII. denboraldia beteko du 2011-12 ikasturtean eta 2009ko uztailaren 5ean 3.000. atala eskaini zuen ETBk¹. 1994.eko urriaren 1ean emititu zen lehen aldi hartan inork ez zuen pentsatuko horrelako markarik egin zitekeenik. Urte asko pasatu dira, atal asko grabatu eta emititu. *Goenkale* mugari izan da, eta hala da oraindik Euskal Telebistako lehen katearentzat, euskarazko telebista-gintzarentzat, eta euskarazko fikzio seriatuarentzat: markak hautsi ditu, bai emisio-denboran, atal kopuruan zein audientzietan.

Helburuak goian aipatutako biak badira ere, badago bidean jorratu den beste lan bat, orain arte egin barik zegoena: 2000. urteaz geroztiko euskarazko telebistako fikzio seriatuaren katalogazioa eta deskripzioa. Izan ere, ETBri zein euskarazko ikus-entzunezkoei buruz gero eta ikerketa gehiago dagoen arren, ezer gutxi idatzi da telebistako euskarazko fikzio seriatuaren produkzioaren inguruan. Artikulu honetan azaltzen den ikerlanak hiru aurrekari ditu: Irazuk (2001) Euskal Telebistak 1990-1999 aldian euskaraz zein gaztelaniaz ekoitzi eta emititutako fikzio seriatua aztertu du; Aristik (2003), ostera, *Goenkaleren* kasua du mintzagai bere lanean, eta, anekdoten artean, produkzioari buruzko informazio interesgarria ematen du bertan; ez da ahaztekoa, azkenik, EHUKo ikertzaile talde batek *Goenkale* hasi eta gutxira telesail honen inguruan eginiko azterketa (Azpillaga *et al.*, 1996)².

Telebistako euskarazko fikzioaz hitz egitea, Euskal Telebistarentzat ekoiztita-koaz hitz egitea da, bera baita bezero bakarra euskarazko fikzio seriatua ekoizten duten produkzio-etxeentzat. Euskal Telebistan barne-produkzioko fikzio seriatuak duen presentzia, programazio osoari begira, txikia bada ere, Joselu Blanco ETBko programa eta programazioko buruaren arabera (komunikazio pertsonala, 2009-05-14), apustu ekonomiko handia da katearentzat.

1. Aurrerago ikusiko den bezala, emisio-egunak gutxitu egin dira XII. denboraldiaz geroztik, baina aurrekoekin alderatuta, iraupen bikoitza dute emisio-egun bakoitzean eskaintzen diren atalek. Horrek emisioari begirako atal-kopurua aldatu egiten du zeharo: hau da, emisioaren 70 minutuko atal bat, produkzio-sistemarentzat 35 minutuko bi atal dira. Euskal Telebistak eta *Goenkale* ekoizten duen Pausoka produkzio-etxeak produkzio-sistemari dagokion kontaktetarekin jarraitzen dutenez, ikerketa honetan ere horrela agertzen da.

2. Bada aintzat hartzeko moduko beste aurrekari bat ere: 1997an UEUK antolaturiko “Fikziozko produkzioa Euskal Telebistan eta Goenkale-ren kasua”. Haatik, argitaratu barik daude bertan eskaini ziren hitzaldiak.

Euskal Telebistaren audientzia neurtzen den eremuan —Euskal Autonomia Erkidegoa— jasotzen diren beste kateen programazioetan esanguratsua da fikzioak daukan presentzia (Arana, 2004), eta azken hamabost urteetan handitu egin da, nabarmen, barne-produkzioko fikzioaren ekoizpena eta bere arrakasta audientziaren aldetik (Alvarez Monzonillo eta Lopez Villanueva, 1999; García de Castro, 2002; Diego, 2009).

Telebistaren aroak aztertu dituzten autoreen arabera (Prado, 2003; Scolari, 2008; Gordillo, 2009) hipertelebistaren aroan gaude murgilduta mende-aldaketaz geroztik, eta beronen ezaugarrietako bat da telebista-kateen arteko lehia bizia: lehia horretan, baten programazioak bestearengana eragina izaten du, eta programa arrakastatsuek —audientziari dagokionez— eragin zuzena izaten dute beste kateetako programazioan. Hori dela-eta, Espainiako telebista-kateetan fikzio seriatuak daukan presentziak eragin zuzena dauka Euskal Telebistan.

Telebista-kateen arteko lehiaren harira, ahots kritikoak altxatu dira Euskal Telebistak bizi zuen egoerari buruz. Olasagastik (2004) kritikatu egiten du ETBk Madrilgo kate nagusien eredia kopiatzea, eta zalantzan jartzen du zergatik sartu behar duen audientzien lehian. Muñozen iritziz (2004), ETB1 audientzien menpe bizitzeak beti arazo izatera kondenatzen du euskarazko katea.

Euskal Telebistak sorreratik daukan helburuetariko bat da euskararen sustapena, garapena eta normalizazioa (5/1982 Legea, in EiTbren Plan Estrategikoa, 2000). Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 1992an eginiko txosten batean garrantzia eman zion ETB1eko barne-produkzioari, euskaraz arituko zen beste kanalik ez zegoelako (Arana, in Irazu, 2001).

Fikzioa generora etorrira, Joselu Blancok berretsi egiten du barne-produkzioaren aldeko apustua fikzioa generoaz hitz egiterakoan (komunikazio pertsonala, 2009-05-14): «Gaztelaniaz fikziozko erreferente gehiago daude; beraz, ETB1 lehenestea logikoa da, guk egiten ez badugu ez duelako inork egingo»³.

Irazuren arabera (2001) XX. mendean Euskal Telebistak ekoiztako fikzioari dagokionez, gehiago ekoitzi da euskaraz gaztelaniaz baino: 20 fikzio seriatutik, 13 izan ziren euskarazkoak, 6 gaztelaniaz ekoiztakoak eta bat mutua. Telesail bakoitzaren atal-kopuru eta ordu-kopuruari begira ere, gehiago izan ziren euskarazkoak gaztelaniazkoak baino.

Lan honetan, beraz, ikertu gura izan da, batetik, ea XXI. mendeko lehen hamarkadako uztan ere garrantzi kuantitatibo handiagoa daukan euskarazko fikzioaren barne-produkzioak gaztelaniazkoak baino (uzta hori katalogatuko dugu horretarako); eta bestetik, ea produkzioa baldintzatzen duten faktoreek zelan eragiten duten emisioan eskainiko den produktuan (*Goenkaleren* kasu-azterketaren bidez).

3. Ikertzaileak itzulitako aipua.

1. Ikerlanaren metodologia

Ikerlan honetako marko metodologikoa komunikazio-ikerketetan baliatzen den ikerketa naturalista edo *naturalistic inquiry* metodologia kualitatiboan dago kokatuta (Frey, Botan eta Kreps, 2000). Behaketa eta sakoneko elkarrizketak dira metodologia honen datu-bilketako teknika nagusiak, betiere ez-ausazko laginak baliatuz; azterketa *in situ* egiten da eta jendea testuinguruan aztertzerakoan iker-tzailea bilakatzen da datu-bilketako oinarrizko tresna (paperean egindako galde-egietan ez bezala).

Telebistako produkzioaren ikerketetara etorrira, Newcomb-en arabera (in Jensen eta Jankowski, 1993), parte-hartzaileen behaketa eta elkarrizketak dira erabil-tzen diren bi teknika nagusiak, ikerketa naturalistan bezala. Ikerlan honetan ezinbestean baztertu dugu behaketa teknika, ikergaiak ikerketa hasi aurretiko urte-tarte bat hartzen duelako. Ikerketaren bi helburuetako informazioa jasotzeko, beraz, sakoneko elkarrizketa izan da baliatutako teknika nagusia. Hortaz gain, datu zehatzak lortzeko eta informazio hutsuneak betetzeko galdera zehatzak egin zaizkie eragile batzuei.

1.1. 2000-2009 hamarkadako telebistako euskarazko fikzio seriatua

Sakoneko elkarrizketen bidez, hamarkada honetako fikzioa ekoizteak izan dituen gorabeherak jaso dira. Horretarako hiru sakoneko elkarrizketa egin dira, *Naturalistic inquiry*-an ohikoa den ez-ausazko lagina baliatuta: ETBko programa eta programazioko buru Joselu Blancori, Pausoka produkzio-etxeko gidoilari Maite Duqueri, eta Tentazioa Produkzioak produkzio-etxeko produktore-eragile Eneko Olasagastiri, hain justu.

Bi produkzio-etxe horietako profesionalak —eta ez beste produkzio-etxe batekoak— aukeratzeko arrazoia, berriz, honako hau izan da: hamarkada honetan eurak izan dira hainbat denboralditan luzatu diren fikziozko saioak ekoitzi dituz-tenak, 1. taulan egiazta daitekeen bezala. Bi produkzio-etxe horiek dira, gainera, 2009-10 ikasturtean euskarazko fikzio seriatua egiten ari ziren bakarrak⁴.

Horrez gain, Olasagastiren kasuan, aurreko hamarkadako bi telesail zuzendu zituen Carlos Zabalarekin batera —*Bi eta Bat* eta *Jaun eta Jabe*—, eta *Ertzainak* telesailaren errealizadorea izan zen; Duqueren kasuan, *Goenkaleko* gidoigileen taldean dago sorreratik, eta Pausokaren beste hainbat fikziotan ere parte hartu du (*Hasiberriak* eta *Balbemendin*, besteak beste).

Datu zehatzak eskuratzeko eta infomazioa osatzeko Miramongo artxibora eta Produkzio Departamentura jo da: Miramongo artxiboko buru Cristina Dominguezek eta gainerako langileek euren eskura izan duten informazio guztia eman diote ikertzaileari; bestetik, 2000. urteaz geroztik Miramongo programen produkzioko buru Aitor Auzmendiri esker, artxibo-departamentuak emandako zenbait informazio

4. Tentazioa-ren kasuan, adibidez, 2010eko maiatzaren 26an hasi zen emititzen ETB 2009an ekoitzi zuten *Mugaldekoak* telesaila. Pausokaren kasuan, esana dago jada *Goenkale* dela, alde handiz, emisioan denbora gehien daraman telesaila: 2011-12 ikasturtea du bere XVIII. denboraldia.

kontrastatu eta osatzeaz gain, *Goenkaleren* aurrekontuari buruzko datuak jaso ahal izan ditu ikertzaileak.

1.2. *Goenkale* saioaren kasu-azterketa

Goenkaleren kasu-azterketan ere sakoneko elkarrizketa izan da baliatutako teknika nagusia. Ez-ausazko laginaren bidez hautatutako lau eragileri eginiko elkarrizketetan Juaristiren aholkuak jarraitu ditu ikertzaileak (2003). Elkarrizketatu guztiak telebistako profesionalak dira, eta *Goenkaleren* arlo batean egin dute edo egiten dute lan; horrela, lan-prozesuko eremu garrantzitsuenak jorratu dira: zuzendaritza, gidoigintza, produkzioa eta telebista-katearen programazigintza.

Produkzio-sistemari buruzko xehetasunak jasotzeko, Itziar Zeberioarekin hitz egin da. Pausoka produkzio-etxearen kudeatzailea da 2004. urteaz geroztik, eta *Goenkaleren* produkzioan aritu zen 1997-2004 bitartean, produktore-lanetan zein produktore-eragile edo produkzio-koordinatzaile.

Zuzendaritzaren ikuspuntua jorrazteko Olatz Beobiderengana jo da. Beobide *Goenkaleko* zuzendaria da 2007-08 denboraldiaz geroztik; gainera, ibilbide profesional luzea dauka aktore zein aktore-zuzendari lanetan, antzerki-munduan zein telebistan.

Gidoigintzako lan-prozesuaren eta edukiaren garapenaren ingurukoak ezagutzeko, Maite Duqueri egin zaio elkarrizketa. *Goenkaleren* gidoigile-taldean dago sorreratik eta gidoi-koordinatzailea da 1996. urteaz geroztik⁵.

Azkenik, Euskal Telebistaren iritzia jasotzeko Joselu Blancorekin solastu da ikertzailea; Blanco ETBko programa- eta programazio-arduraduna da 2005. urteaz geroztik, eta aurreko sei urteetan barne-produkzioko fikzioaren ardura izan zuen.

Datu zehatzak lortu eta informazioa kontrastatzeko *Goenkaleko* ETBko produktore-ordezkarri Juana Mari Otaegirengana jo du ikertzaileak, baita *Goenkaleko* produktore-eragile Cristina Bernal eta produktore Naiara Zubillagarengana ere. Bestalde, gidoigintza lan-prozesuaren ataleko behin-behineko emaitzen aurkezpena Itziar Gomez elkarrizketa-bateratzailearekin kontrastatu da.

2. Emaitzen aurkezpena

2.1. Euskarazko fikzioaren barne-produkzioa XXI. mendeko lehen hamarkadan

2000-2009 aldian 17 fikzio seriatu ekoitzi eta emititu ditu Euskal Telebistak, 11 euskaraz⁶ eta 6 gaztelaniaz. Hona hemen aldi honetan ETBk euskaraz eta gaztelaniaz ekoitzi eta emititutakoa.

5. Gaur egun ardura hori Pedro Fuentes-ekin batera daroa.

6. Hamaikako zerrenda horretan, emisioaren arabera ordenari jarraituz zerrendatzen den lehena *Goenkale* da; jakina den bezala, *Goenkale* 1994. urtean hasi zen, baina oraindik ere ekoitzi eta emititzen denez, ezinbestekoa da XXI. mendeko sailkapenean ere sartzea. Dena den, horrek esan nahi du bi hamarkadetako euskarazko fikzio seriatuaren tituluak zenbatuz gero, 23 izango liratekeela, ez 24.

1. taula. 2000-2009 urte-tarteko Euskal Telebistako fikzio seriatua.

Saioa	Emisio- hasiera	Hizkuntza	Produkzio- etxea	Atal- kopurua
Goenkale	1994/10/03	Euskara	Pausoka	3.011 ⁷
Ander eta konpañia	2000/09/17	Euskara	Igeldo	13
Platos sucios	2000/09/28	Gaztelania	Koma	13
Campus	2001/01/05	Gaztelania	Hegaz tv Film Producers	13
Teilatupean	2001/01/07	Euskara	Igeldo	13
Hasiberriak	2001/04/02	Euskara	Pausoka	135
Alquila2	2001/07/21	Gaztelania	Igeldo	13
Kilker Dema	2002/04/14	Euskara	Igeldo	13
Martin	2003/09/27	Euskara	Tentazioa Globomedia	100
Mi querido Klikowsky	2005/08/29	Gaztelania	Tentazioa Globomedia	104
En buena compaia	2006/09/18	Gaztelania	Co. Eficiente	12
Balbemendi	2006/10/11	Euskara	Pausoka	27
Kutsidazu bidea, Ixabel	2007/04/15	Euskara	Tentazioa Orio Rec.	5
Pilotari	2007/09/23	Euskara	Koma	26
Brinkola	2009/04/19	Euskara	On Time	13
Euskolegas	2009/05/11	Gaztelania	Pausoka	12
Goazen	2009/10/09	Euskara	Pausoka	12

Iturria: Lanketa propioa.

Ikerlanaren jomuga den euskarazko fikziora etorrira, beronen katalogazio-lana egin da; horretarako produkzio bakoitzaren fitxa bat osatu da, emisioaren antzintasunaren arabera ordenatuta.

7. Aipatzen den atal-kopuru hau ez dagokio 2000-2009 aldiari, 1994. urtean emititzen hasi eta 2009-2010 ikasturte bitarteko aldiari baizik.

Goenkale⁸

Iraupena: 70' (produkzioko 35'ko bi atal)
Atal-kopurua: 3.011 (...) ⁹
Produkzio-urtea: 1994-2010 (...)
Azpigeneroa/formatua: Azpigenero askotako telenobela (ikus kasu-azterketa)
Estreinaldi-data: 1994-10-1
Emisio-eguna eta ordua: Astelehen-asteartea, 22:00etan
Zuzendaria: Olatz Beobide
Produkzio-etxea: Pausoka

Argumentua: Arralde herriko bizilagunen maitasun, gorroto, poztasun, tristura, leialtasun eta traizioak kontatzen ditu telesail honek. Telenobela formatukoa izanik, izaera korala dauka eta pertsonaia desberdinen istorioak tartekatzen dira atal bakoitzean.

Ander eta konpainia

Iraupena: 25'
Atal-kopurua: 13
Produkzio-urtea: 2000
Azpigeneroa/formatua: Umorea
Estreinaldi-data: 2000/09/17
Emisio-eguna eta ordua: ¹⁰ Igandea, 21:30ean
Zuzendariak: Juan Carlos Rubio eta Beatriz Iso
Produkzio-etxea: Igeldo Komunikazioak

Argumentua: Ander abokatuaren abenturak eta kalenturak kontatzen ditu telesail honek. 40 urte bete dituen egun berean, defendatu behar duen droga-trafikatzailea zigortu egiten dute bere erruz. Ondorioz, lan egiten duen bulegotik bota egingo dute. Anderrek abokatu-bulegoa jarriko du etxean, Vera eta Gorka bere lagunak laguntzarekin.

8. *Goenkaleren* ibilbidea luzea izanik, aldaketa asko izan ditu fitxan agertzen diren ezaugarrietan; hori dela-eta, datu gaurkotuak ematea hobetsi da, 2009-2010 ikasturtekoak, hain zuzen ere.

9. Atal kopuru hau 2009-2010 ikasturteko azken egunean emititutakoari dagokio, eta produkzio-sisteman darabilten kontaketa da, ez emisiokoa.

10. Hemendik aurrerako fitxetan ageri diren emisio-egun eta emisio-orduak lehen atalaren emanaldiari dagozkio.

Teilatupean

Iraupena: 20'
Atal-kopurua: 26
Azpigeneroa/formatua: Umorea
Produkzio-urtea: 2000-2001
Estreinaldi-data: 2001/01/07
Emisio-eguna eta ordua: Osteguna, 21:10ean
Zuzendari: Kepa Gallego
Produkzio-etxea: Igeldo Komunikazioak

Argumentua: Tomas eta Miren senar-emazteak dira; maitasunak aspaldi alde egin zuen euren bizitzatik, baina, egoera ekonomikoa dela-eta, elkarrekin bizitzen jarraitzen dute. Hori gutxi balitz, egunkari berean egiten dute lan: Tomas komikigilea da eta Miren, berriz, kazetaria.

Hasiberriak

Iraupena: 25'
Atal-kopurua: 135
Azpigeneroa/formatua: Gazteen munduan girotutako egunerokoa
Produkzio-urtea: 2000-2002 (bi denboraldi)
Estreinaldi-data: 2001/04/02
Emisio-eguna eta ordua: Astelehenetik ostegunera 22:15ean
Zuzendaria: Javier Garcia Vicuña
Produkzio-etxea: Pausoka

Argumentua: Unibertsitateko ikasle-talde baten bizimodu, abentura, arazo eta maitasunak kontatzen dituen telesaila, gazteak protagonista dituen eta gazteei zuzendutakoa.

Kilker dema

Iraupena: 25'
Atal-kopurua: 13
Produkzio-urtea: 2001
Azpigeneroa/formatua: Umorea
Estreinaldi-data: 2002/04/14
Emisio-eguna eta ordua: Igandea, 21:20an
Zuzendari: Agurtzane Intxaurreaga
Produkzio-etxea: Igeldo Komunikazioak

Argumentua: Lehiaketa bateko partaide diren lau lagun abentura eta gorabeherak. Lehiakideek astelehenetik ostiralera bitartean Nikanorren etxean elkarrekin bizi behar dute, Nikanor beraren eta Jeronimo atezainaren begira-dapean.

Martin

Iraupena: 30'
Atal-kopurua: 100
Azpigeneroa/formatua: Umorea
Produkzio-urtea: 2003-2008
Estreinaldi-data: 2003/09/27
Emisio-eguna eta ordua: Asteazkena, 22:40an¹¹
Zuzendaria: Eneko Olasagasti, Mireia Gabilondo
Produkzio-etxea: Tentazioa Produkzioak; Globomedia

Argumentua: Martinek Donostiako Irutxulo irrati lokalean egiten du lan, Inaxio izeneko jesuitaren zuzendaritzapean. Bere burua *progretzat* du, laurogeiko hamarkadako musika entzuten du eta musika-gustuei buruz sutsuki eztabaidatzen du 8 eta 18 urteko bere bi alabekin. Etxeko beste kideak bere emazte Marta eta ama dira.

Balbemendi

Iraupena: 55'
Atal-kopurua: 27 (15 lehenengo denboraldian eta 12 bigarrenean)
Azpigeneroa/formatua: Misterioa, intriga
Produkzio-urtea: 2006 eta 2007 (bi denboraldi)
Estreinaldi-data: 2006/10/11
Emisio-eguna eta ordua: Igandea, 22:00etan
Zuzendaria: Jabi Elortegi
Produkzio-etxea: Pausoka

Argumentua: Artikutza Parke Naturalean girotu eta grabatutako misteriozko telesail honetan, Ane izeneko neska gaztea Balbemendin gertatutako desagertze arraro bezain misteriozkoak ikertzeraz doa.

Kutsidazu bidea, Ixabel

Iraupena: 50'
Atal-kopurua: 5
Azpigeneroa/formatua: Umore miniseriea (tragikomedia)
Produkzio-urtea: 2005
Estreinaldi-data: 2007/04/15
Emisio-eguna eta ordua: Igandea, 22:00etan
Zuzendaria: Mireia Gabilondo, Fernando Bernues
Produkzio-etxea: Tentazioa Produkzioak, Orio Produkzioak, REC.

Argumentua: Juan Martin, donostiar gazte euskaldunberria, Harrialde izeneko baserri-giroko herri euskaldunera doa udara pasatzera. Helburua, euskaltegian

11. Lehenago azaldu bezala, data hau lehen emanaldiari dagokio. Dena den, azken denboraldietan, Martinen emisioa ostiraletan izan zen.

ikasitakoari astindu ederra ematea «benetako» euskaldunekin praktikatuz. Horretarako, Aranguren baserrian hartuko du ostatu, eta familiaren bizimoduan murgilduko da bete-betean.

Pilotari

Iraupena: 50'
Atal-kopurua: 26
Azpigeneroa/formatua: Drama
Produkzio-urtea: 2007- 2008 (2 denboraldi)
Estreinaldi-data: 2007-09-23
Emisio-eguna eta ordua: Igandea, 22:00etan
Zuzendaria: Emilio Macgregor
Produkzio-etxea: 3 Koma, Baleuko

Argumentua: Pilota-munduan girotutako telesaila. Julen Gortari pilotari gaztea kartzelatik irten berri da, droga kontuengatik bost urte giltzapetuta pasatu ondoren. Kartzelan «el vasco» goitizena duen gaizkile baten babesari izan du.

Brinkola

Iraupena: 40
Atal-kopurua: 13
Azpigeneroa/formatua: Umore surrealista
Produkzio-urtea: 2008
Estreinaldi-data: 2009/04/19
Emisio-eguna eta ordua: Igandea, 21:30ean
Zuzendariak: Asier Altuna, Telmo Esnal
Produkzio-etxea: On Time

Argumentua: Brinkolan, aspaldi geratu zen denbora: mundutik aparte bizi den herria da, ez baitute inorekin inolako harremanik. Trena bertatik pasatzen zenean munduarekin konektatuta zeuden; orain, aldiz, bakanak dira kanpoko bisitak, eta euren idiosinkrasia originala bezain xelebrea da, garai bateko denboran kokatua: etxeak aspaldikoak dira, arropak noizbaitekoak, eta bertakoen orrazkerek beste mundu batekoak dirudite.

Goazen

Iraupena: 50'
Atal-kopurua: 12
Azpigeneroa/formatua: Umeei zuzendutako musikala
Produkzio-urtea: 2009
Estreinaldi-data: 2009/10/09
Emisio-eguna eta ordua: Ostirala, 21:30ean
Zuzendaria: Jabi Elortegi
Produkzio-etxea: Pausoka

Argumentua: Euskaraz ekoiztako lehen musikak honek Basakabi udalekuko gazteen abenturak kontatzen ditu. Gazteen bizipenak musika eta dantzarekin tartekatzen dira, betiere udalekua zuzentzen dute apaizen begiradapean. Abestu eta dantzatzen diren kantuak euskarazko abesti ezagun bezain arrakastatsuak dira, hala nola *Lau Teilatu* (Itoiz), *Aitormena* (Hertzainak), *Txoria txori* (Mikel Laboa) eta *Ilargia* (Ken Zazpi), besteak beste.

2.2. Errealitatearen mugak

Errealitatearen mugei dagokienez, produkzioan eragiten duten lau faktore identifikatu dira: audientzia potentziala eta fikzioari kateak eskatutako ikusle-kopurua, aurrekontua, grabazio-egunak eta fikzioan hautatutako azpigeneroa. Faktore hauek domino-efektua sortzen dute elkarren artean: lehenak bigarrenari eragiten dio, bigarrenak hirugarrenari eta abar, domino-fitxak bailiran.

2.2.1. Euskarazko fikzioaren audientzia potentziala eta eskatzen zaion ikusle-kopurua

Neotelebistaren aroaz geroztik, telebista-kateak audientziaren lehia bizi dira eta audientzien neurketek agintzen dute, hein handi batean, programa batek emisioan jarraituko duen ala ez erabakitzeke orduan. Bada, testuinguru horretan, audientzia potentzialaz hitz egiteko orduan, neurtzen den audientzia potentzialaz ariko da ikertzailea.

Bestalde, neurtzen den audientzia potentziala zein den ulertzeko ezinbestekoa da euskarazko telebistak dituen beste muga batzuek ohartaraztea. Izan ere, bai Euskal Herriko banaketa geopolitikoak, bai biztanleriaren elebitasunak, baldintzatu egiten dute euskarazko telebistako edozein saioen ikusle-kopurua: batetik, Euskal Telebistako audientzia neurtzen duen TNS enpresak, Euskal Autonomia Erkidegoko audientzia baino ez du kontuan hartzen ETBren kasuan; bestetik, euskalduna ez den biztanleria nekez jarriko da telebista aurrean euskarazko kate bat ikusten, hizkuntzaren ezagutza eskatzen ez duen saio bat ez baldin bada behintzat (kirol-emanaldien kasuan, adibidez)¹².

TNS enpresak EUSTATen datuak baliatzen ditu EAEko unibertsoa zenbatzeko orduan (Blanco, komunikazio pertsonala, 2010-03-23) eta 2008ko urtekarian argitaratutako datuetan, Euskal Autonomia Erkidegoan lau urtetik gorako 2.033.801 biztanleko unibertsoa hartzen du kontuan. TNS enpresak argitaratzen dituen datuak, beraz, unibertso horren araberakoak dira. EAEn euskara dakien biztanleria hartzen bada kontuan, baina, unibertsoa zeharo aldatzen da. Izan ere, EUSTATEk argitaratutako datuen arabera, 2006an ia 775.000 biztanle ziren, bi urte edo gehiagokoan artean, euskaraz ondo ulertu eta mintzatzen zirenak.

12. Hara zer dioen honi buruz Koldo Izagirrek (in Muñoz, 2004: 46): «Euskarari dagozkion datuak populazio osora extrapolatzen dira. Euskaldunok gutxiengotuak gara. Alegia, euskaldunok ez gara berez, baizik beste multzo batetik. Esate baterako, euskarazko irratsaioen entzuleak biztanlegoaren ehuneko hainbeste dira (...) Nola extrapolatuko dugu euskararen entzutea euskara ulertzen ez dutenetara?».

775.000 lagunekoa da, beraz, telebistako euskarazko fikzio seriatuaren audientzia potentziala¹³. Haatik, 42.468.644 pertsonako audientzia potentziala daukaten programekin lehiatzen da ETB: hori zen, izan ere, TNSren neurketen arabera Espainiako estatuko unibertso totala 2008an¹⁴ (TNS, 2008), eta Euskal Telebista Espainiako estatuko kateekin lehiatzen da audientzia eta publizitatearen borrokan.

Euskal Telebistak euskarazko fikzio seriatu bati eskatzen dion batez bestekoa audientzien *rating*aren % 2 da, hau da, EAEko 40.000 biztanle. Horrek esan gura du Euskal Telebistak audientzien jomugatzat EAEko euskaldunen % 5 daukala euskarazko fikzio seriatuetan¹⁵.

Datu hauek urruti daude ETB1eko audientzien batez bestekoetatik: izan ere, 2008an katearen batez bestekoa 11.000 ikuslekoa izan zen, hau da, *rating*aren % 0,5, edo, beste era batera esanda, EAEko 4 urtetik gorako biztanleriaren % 0,5 eta euskaldunen % 1,4¹⁶. Edozelan ere, ETBk eskaintzen duen barne-produkzioko fikzio guztia, euskarazko katean zein gaztelaniazkoan, *prime time*an eskaintzen da, eta telebista-kateen programazioetako *prime time*an emititzen diren programak dira audientzia-daturik onenak lortzen dituztenak, ordu-tarte horretan (20:30/24:00 bitartean) kontsumitzen baita telebista gehien.

2.2.2. Fikzio seriatu baten aurrekontua

Blancoren arabera, gaur egun Espainiako estatuko fikzioaren batez besteko aurrekontua, atal bakoitzeko 500.000 eurokoa da. Batez bestekoa izanik, aurrekontuak asko aldatzen dira produkzioaren arabera: kasu zehatzak aipatzearen, adibidez, *Aguila Rojaren* lehen denboraldiko atal bakoitzaren aurrekontua milioi batekoa zen; *Aidaren* atal batena, ostera, 700.000koa (Blanco, komunikazio pertsonala, 2009-05-14). Horiez gain, badaude beste hainbat fikzio milioi erditik beherako aurrekontuekin egiten direnak.

Kontuak kontu, aurrekontu hauek pentsaezinak dira Euskal Telebistako fikziozko saioentzat. Izan ere, Blancoren esanetan, ETBn ez dago atal bakoitzeko 85.000 eurotik gorako aurrekontua duen saiorik. *Goenkalek*, eguneroko saio baten produkzio-sistema izanik, aurrekontu txikiagoa dauka atal bakoitzeko, aurrerago ikusiko den bezala.

13. EUSTATEk argitaratutako datuen arabera, 2006an EAEko biztanleriaren artean, 459.000 ia-euskaldunak ziren, hau da, ulermen ona edo hala moduzkoa zutenak eta zailtasunez hitz egiten zutenak. Ikerlan honetan talde hau alde batera uztea hobetsi da, ez baitago modurik jakiteko zenbat diren, aipatutako kopurutik fikziozko saio bat jarraitzeko besteko euskara maila dutenak. Ia-euskaldunen multzoa audientzia potentzial gisa hartuko bagenu, audientzia potentzialaren taldea 1.234.000 litzateke, hau da, EAEko biztanleriaren 4 urtetik goragoko erdia baino gehiago.

14. Instituto Nacional de Estadística (INE) arabera, Espainiako estatuko biztanle-kopurua 46.745.807koa zen 2009ko urtarrilaren 1ean (www.ine.es/jaxi/tabla.do); dena den, audientziari begira TNSren datuak hobetsi dira, bere neurketetan oinarritzen baitira telebista-kateak publizitatea lortzeko bizi duten lehian. TNSk neurketetarako erabiltzen duen unibertsoa lau urtetik gorako biztanleria da.

15. EUSTATen ikerketako ia-euskaldunen multzoa ere audientzia potentzialtzat hartuz gero, Euskal Telebistak euskarazko fikzio seriatuari eskatzen dion audientzia euskaldunen % 3,2 da.

16. EUSTATen ikerketako ia-euskaldunen multzoa ere gehituko bagenu gure kalkulura, ETB1eko batez besteko audientzia euskaldunen % 0,8 litzateke.

Goenkaleren adibidea ematen du Blancok, hain zuzen ere, azaltzerakoan aurrekontu txikiaren muga izan arren emaitza ona lor daitekeela, eta, kasu batzuetan, lortu ere lortzen dela:

Telesailak egiten dituztenak, hemen Euskadin, jakitun dira, eta jakitun gara gure mugez. Badakigu askotan hobetu daitezkeela. Beste gauza bat da esatea: «telesailak funtzionatzen du eta gure markoari erantzuten dio, gure neurrikoa den markoari». Eta uste dut gure telesailak oso modu onean lehiatu direla konpetentziako telesailekin. *Goenkaleren* kasua nabarmena da: gaur egungo panoraman euskaldunen artean bigarren aukera izatea eta hamaseigarren denboraldian egotea itzelezko lorpena da¹⁷ (Blanco, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Euskal Telebistarentzat fikzioa egitea oso garestia dela entzunikoan, berriz, modu honetan mintzo da Eneko Olasagasti (komunikazio pertsonala, 2009-05-29): «Oso garestia da, baina egiten dugu kanpoan baino askoz merkeago. Diferentzia ikaragarria dago. Minimo batzuk errespetatu behar dira, bestela prekarietatera goaz. Jendeak lan egiten du prekarioan».

Produkzio-moduak gehiegi estutzen ez ote diren galdetuta, honela erantzun du Blancok:

Ez, kontua da ez dagoela besterik. Fikzioa egin gura baldin badugu, prezio horretan egin behar dugu, bestela ezin izango genuke egin, eta fikzioa egin gura dugu. Fikzioa egin gura dugu, nire ustez azken batean gure industriari ekarpen handiena egiten dion generoa delako. Gainera kulturaren alor garrantzitsua da fikzio propioa izatea. (...) Horregatik, beti egin dugu apustu. Beste kontu bat da egin dezakegula gure aurrekontuen neurrian. Gustura egingo genituzke telesail handiagoak eta baliabide gehiagorekin, baina ezin dugu¹⁸ (Blanco, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Etorkizunari begira, Blancoren ustetan (komunikazio pertsonala, 2009-05-14), telebista publikoek baliabide ekonomiko gutxiago izango dituzte, eta, beraz, erronka da aurkitzea fikzioa egiten jarraitzeko modua, berau hain genero garestia izaki.

2.2.3. Grabazio-egunak

Aurrekontuak erabat eragiten du atal bakoitza grabatzeko erabiltzen den egunen kopuruan eta kanpoan egiten diren grabazioen kopuruan, baita planteatzen diren eszenarazteetan ere: jakina da askoz denbora gehiago behar dela akzio-sekuentzia bat egiteko, edota jende askok parte hartzen duen grabaketa bat egiteko, bizpahiru laguneren arteko aurrez aurreko solasaldi bat platoan grabatzeko baino.

Euskal Telebistak ekoizten duen fikzioan, gehienez hiru egun eta erdiko grabazioa izaten da atal bakoitzeko.¹⁹ Horrek, nola ez, baldintzatu egiten du istorioan

17. Ikertzaileak itzulitako aipua.

18. Ikertzaileak itzulitako aipua.

19. Dena den, Tentazioa Produksioak produkzio-etxeko produktore eragile Eneko Olasagastik dio (komunikazio pertsonala 2009-05-29) produkzio batzuen hasieran lau eguneko grabazioak eduki izan dituztela, eta, behin lan-erritmoa hartutakoan, hiru egun eta erdira jaitsi izan dituztela grabazio-egunak.

egongo den akzio-kopurua, kanpoko sekuentzien kopurua eta, oro har, grabazioari konplexutasuna ekar diezaioketen ezaugarriak dituzten sekuentzien kopurua.

Aztergai den hamarkadako euskarazko fikzio seriatuek atal bakoitza grabatze-ko baliatu duten egun-kopurua dago zerrendatuta ondorengo taulan. Kontuan hartu, hori bai, balio hauek kuantitatiboak direla; izan ere, taulan ez da azaltzen saioaren sekuentziek duten konplexutasuna.

2. taula. 2000-2009 hamarkadako telebistako euskarazko fikzio seriatuen grabazio-egunak, atal bakoitzeko.

Saioa	Produkzio-urteak	Iraupena minututan	Grabazio-eguna atal bakoitzeko
Goenkale	1994-2010	35 ²⁰	1
Ander eta konpañia	2000	25	1
Teilatupean	2000	20	1
Hasiberriak	2000-2002	25	1
Kilker Dema	2001	25	1
Martin	2003-2008	30	2
Balbemendi	2006-2007	55	3 eta erdi
Kutsidazu bidea, Ixabel	2005	50	X ²¹
Pilotari	2007-2008	50	3
Brinkola	2008	40	3 eta erdi
Goazen	2009	52	3 eta erdi

Iturria: lanketa propioa.

Taulak agerian uzten duen bezala, hamarkadako lehen urteetan fikziozko saioek, *Goenkalek* salbu, 20-25 minutuko atalak zituzten, eta guztiak egun batean grabatzen ziren. Dinamika hori hautsi egin zen *Martinekin*, eta hortik aurrerako ekoizpenek egun gehiago baliatu dituzte atal bakoitzeko; kasu gehienetan hirukoiztu egiten dira grabazio-egunak, baina kontuan hartu behar da, baita ere, *Martin* eta *Brinkola*ren kasuan izan ezik, atalen iraupena ere bikoiztu egin dela (25 minututik 50era).

20. Lehen oin-oharreen azaldu bezala, 2006. urteaz geroztik, *Goenkale* 70 minutuko ataletan eskaintzen da emisioan, hau da, ordura artekoen iraupen bikoitza daukaten ataletan. Dena den, produkzioari begira, 35 minutuko atalen sisteman jarraitzen dute lan egiten. Horregatik, taula honetan berari buruzko datua ematerakoan, produkzio-sistemari dagokion atalaren iraupena ematea hobetsi da.

21. *Kutsidazu bidea Ixabel* miniseriearen produkzio-sistema berezia izan zen, miniserieko 5 atalez gain filma ere grabatu zelako grabazio-plan berean. Produkzio-sistema honekin filma osatu zuten eta, era berean, filmeko sekuentziak baliatu zituzten, beste sekuentzia batzuk gehituz, miniseriea osatzeko. Konplexutasun hori dela-eta, ikertzaileak ETBko Miramongo produkzioko buruari eta Tentazioa produkzio-etxeko arduradunei galdetu dien arren, ezinezkoa izan da jakitea zenbat izan ziren miniserieko atal bakoitzeko baliatu zituzten grabazio-egunak.

Gaur egungo grabazio-ratioez hitz egiterakoan, honela dio Blancok (komunikazio pertsonala, 2009-05-14):

Goenkalez gain, ez dago proiekturik ratio horiekin, eta Goenkaleren kasuan posible da serial bezala egina dagoelako, istorioa ahozkoagoa delako eta pertsonaiak elkarren artean askoz ere gurutzatuago daudelako; ia gehiena dekoratua grabatua dago eta kanpoko grabaketak egiten direnean, leku finko batean egiten dira, dena guztiz kontrolatuta dagoen lekuan; eta muntaketa anbiziotsuagoak salbuespenak dira²².

Ikertzaileak hamarkada hasieran Igeldok ekoiztiko saioak aipatu dizkionean Blancori (gogorarazteko, orain ez bezala, egin izan direla egun bateko grabazioko produkzioak), honako hauek izan dira bere hitzak:

Hori Angel Amigoren ideia izan zen. Niri, egia esan, paper gainean zegoena egitea oso zaila iruditu zitzaidan. Eta uste dut emaitzan ere ikusi egiten dela. Gutxieneko produkzio bat behar duzu, gutxieneko profesionaltasun bat. Lan-taldeetan beti egon behar dute *senior* eta *junior*-ek, baina ezin duzu dena egin *junior*-ekin, oso zaila da gero grabatzeko ondo egongo den zerbait idaztea²³ (Blanco, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Olasagastiri galdetutakoan ea sentitu al izan duten presiorik Euskal Telebistarengandik *Goenkalek* daukan produzitzeko modua euren ekoizpenetan erabiltzeko, baiezkoa izan da jasotako erantzuna:

Ikaragarria. Nik ulertzen dut *kulebroi* bat egiteko horrelako zerbait behar dela, baina dena ezin da egin *kulebroi* bat bezala. Beste leku batzuetan *kulebroiak* egiten dira *kulebroi* bezala eta egunero grabatzen dira minutu pila bat eta tentsio handiaren egiten da lan, eta asterokoak grabatzen dira beste parametro batzuetan. Guk hori defendatu izan dugu beti. Orain ere gauza bera defendatzen dugu eta presio ikaragarria da, soldatetan eta denean. Ez dute ulertzen guk egiten dugula 13 ataleko serie bat urtean edo 26koa, ez ditugula egiten 52 atal (Olasagasti, komunikazio pertsonala, 2009-05-29).

Alderantziz, beste iritzi batekoa da Pausokako kudeatzaile Itziar Zeberio:

Nik uste dut ETBtik presioa sentitu baino gehiago dela, guk *Goenkaleren* esperientzia daukagula; oso kontrolatuta daukagu (...). Orduan nik uste dut ETBk eskatu baino gehiago, normalean izan dela planteatu dugula gauzak egiteko era *Goenkaleren* esperientziatik eta esperientzia horretatik positiboa dena, nolabait, erabili egin dugula beste programetan aplikatzeko (...) eta ez da bakarrik ETBn egin dugun gauza. Gu Madrilera joan garenean, programa batzuk, nolabait esatearren, *Goenkalizatu* egin ditugu produkzio-sisteman. Horrek ez du esan nahi egunean kapitulu bat grabatuko denik, baina bai *Goenkaleko* mekanikan dauden gauza onak aplikatzen ditugula (Zeberio, komunikazio pertsonala, 2010-03-11).

Hamarkadan zehar atal bakoitzeko grabazio-egunen kopuruan izan den igoera positiboa bada ere, lehiakide den Espainiako estatuko barne-produkzioeko fikzio seriatuaren datuekin konparazioa egiten jarrita, euskarazko telefikzio seriatuaren eta azken horren arteko aldea nabarmena da: 1995-1999 aldian atal bakoitzaren

22. Ikertzaileak itzulitako aipua.

23. Ikertzaileak itzulitako aipua.

grabazio-jardunen kopurua 5 eta 9 artekoa zen Espainiako telefikzio seriatuan, formatuaren edo azpigeneroaren arabera (García de Castro, 2002).

2.2.4. Fikzioaren azpigeneroak: familia osoari zuzendutako fikzioa

Euskarazko saioen ikusleria potentziala txikia denez, familia osoari zuzendutako fikzioa da gehien ekoizten dena. Gutxitan egiten da apustu genero baten edota ikusle-talde bati zuzendutako fikzio-saio baten alde. Edozelan ere, 2000-2009 aldiko fikzio seriatuaren ekoizpenean apustu handiagoa egin da generoen alde aurreko hamarkadan baino, ondorengo taulan ikusten den bezala:

3. taula. 2000-2009 urteetako fikzio seriatuaren ezaugarriak.

Saioa	Azpigeneroa / Formatua
Goenkale	Telenobela
Ander eta konpañia	Umorea
Teilatupean	Umorea
Hasiberriak	Genero desberdinetako fikzioa, gazteen munduan girotutakoa
Kilker Dema	Umorea
Martin	Umorea
Balbemendi	Misterioa, intriga
Kutsidazu bidea, Ixabel	Tragikomedia
Pilotari	Drama
Brinkola	Umore surrealista
Goazen	Musikala, umeei zuzenduta

Iturria: lanketa propioa.

Blancoren esanetan (komunikazio pertsonala, 2009-05-14), fikzioan misterioa bezalako azpigeneroen alde apustu egiten den heinean —*Balbemendi*ren kasuan—, saioa ez da publiko zabalari begira pentsatuta egoten, genero mota horrek ez dituelako familia osoaren gustuak betetzen. Kasu berean legoke *Brinkola*, bere umore surrealistarekin zailtasunak izan baititzake ikusleria zabala erakartzeko. Dena den, kasu horietan ere, ahalegina egiten da, modu batera edo bestera, ikusle askorengana iristeko. Erabiltzen den estrategia bat da adin guztietako pertsonaiak izatea, ikusle bakoitzak izan dezan pertsonaiaren bat zeinekin identifikatu.

Olasagastiri galdetutakoan ea ausardia-falta al dagoen Euskal Herrian eta euskaraz beste fikzio mota bat egiteko, honela dio:

Nik uste dut ETB bizi dela kontraesan horretan: *generalista* den neurrian kontserbadorea da, baina txikia den neurrian eta aurrekontu murriztarekin lan egiten den neurrian, bada apustuak ere egin behar ditu. Kontraesan horretan bizi da eta batzuetan arriskatzen du eta besteetan ez (Olasagasti, komunikazio pertsonala, 2009-05-29).

Pausokako gidoilari Maite Duqueren ustetan ere Euskal Telebistak normalean ez du arriskurik hartu nahi izaten; oso kontserbadoreak dira, beste telebista-kate asko bezala. Horregatik harritu zuen erabat *Brinkola* bezalako saio bat ETB1en ikusteak; gustatu ala ez, apurtzailea zela dio, eta bere ustetan hori da behar duguna, gauza desberdinak eskaintzea. Horrelako salbuespen gutxi batzuk alde batera utzita, bere sentsazioa da fikzioa gai bertsuekin egiten dela (Duque, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Hasiberriak saioarekin gertatutakoa aipatzen du Duquek. *Goenkaleren spin off*-a zen, eta *Goenkalen* zegoen gazte-taldea unibertsitatera joateko garaira iritsi izana izan zuen abiapuntu *Hasiberriak* telesaiok. Bigarren denboraldiaren amaieran familia osoari zuzendutako zerbait eskatu zieten, eta hainbat proiektu aurkeztu bazituzten ere, ez zituzten onartu. Haren esanetan, familia osoari zuzendutako proiektua diseinatzerakoan, berriz ere *Goenkaler*a bueltatzea bezala zen: «*Hasiberriak*-ek oso ondo funtzionatzen zuen gazteentzako telesail bezala, baina beti amaitzen dute zer edo zer familiarragoa eskatzen; azkenean beti egin behar dituzu familia osoari begirako telesailak»²⁴ (Duque, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Gainera, Duqueren ustetan (komunikazio pertsonala, 2009-05-14), genero batzuen alde apustu ez egitearen arrazoia ekonomikoa ere bada, genero batzuek (poliziakoak, adibidez) akzioa eta efektu bereziak eskatzen baitituzte, eta ETBk ez du horretarako baliabiderik ematen.

Horren harira, ekar dezagun gogora 1999an ekoitzi eta emititu zen *Ertzainak* telesaila: ETBk 13 ataleko sorta enkargatu zion Tentazioak produkzio-etxeari, baina 7 atal baino ez ziren grabatu, atal bakoitzak hitzartutakoa baino kostu handiagoa zuelako. Produkzioa aurrekontuaren barruan sartzeko, ETBk kanpoko grabazioak murriztu eta istorioa platoko lau hormetan kokatzea iradoki zuen, baina Tentazioa produkzio-etxekeok nahiago izan zuten produkzioa bertan behera utzi; haien ustetan *Ertzainak*-ek akzio gutxi hori beharrezkoa zuen, polizia-genero izaerari eutsi nahi bazion (Olasagasti, komunikazio pertsonala, 2009-05-29).

2.3. Kasu-azterketa: *Goenkale*

Goenkalek produkzio modu berria ezarri zuen ETBn, egunero atal bat grabatzean oinarriturikoa; hasierako produkzio-sistemak aldaketa eta hobekuntza batzuk izan baditu ere, oinarriari bere horretan eutsi zaio. Bestalde, 3.000 atal grabatu eta emititzeak, istorio eta pertsonaien ezinbesteko garapena ekarri du. Azkenik, emisioan aldaketa garrantzitsuak egin dira. Bada, ikerketa honek, hiru hari nagusi horiei tira eginez —produkzio-sistema, edukia, eta emisioa—*Goenkaler*en garapena eta bilakaera aztertu ditu.

24. Ikertzaileak itzulitako aipua.

2.3.1. *Produkzioan izandako eboluzioa*

Produkzio hitzak, bere zentzurik zabalenean, alor askori egiten dio erreferentzia: aurrekontuari, produkzio-sistemari, zein bien uztarketan zuzenean edukiari eragiten dioten hainbat faktoreri —hala nola atalaren iraupenari, dekoratu eta lokalizazio-kopuruari eta sekuentzien kopuruari—.

Denbora luzea daraman produkzioa izanik, handitu egin da *Goenkaleren* aurrekontua: hasierako atalek 25 minutu inguruko iraupena zuten eta 15.000 euroko kostu totala; XVI. denboraldikoek, ostera, 28.000 euroko aurrekontua izan dute 35 minutuko atal bakoitzeko, edo 56.000 euro emisioko 70 minutuko atal bakoitzeko (Auzmendi, komunikazio pertsonala, 2010-06-10). Horrek esan nahi du hasierako atal bakoitzeko minutuak 600 euroko kostu totala zuela, eta gaur egungoak, aldiz, 800 euro.

Aurrekontuan izandako eboluzioa aztertzeko orduan, kontuan hartu behar dira, batetik, PFEZaren igoera, eta bestetik, urteen poderioz egindako aldaketak edukiaren ezaugarri kuantitatiboetan (lehen aipatutako dekoratu, lokalizazio eta sekuentzien kopurua) eta produkzio-sisteman.

Lehen denboraldian, *Goenkaleko* atalen iraupena 25 minutukoa zen, 12 sekuentzia zituzten atalek eta guztia Miramongo produkzio-zentroan grabatzen zen, 7 dekoratutan²⁵. Orain, ostera, atalak²⁶ 35 minutuko iraupena dauka eta 17 sekuentziez dago osatuta. Grabazioetarako erabiltzen den platoa hasierakoa baldin bada ere (Miramongo Plato 21a), orain 15 dekoratu desberdinekin egiten dute lan²⁷. Gainera, 5 egunetik behin, unitate mugikorra baliatuz, platoko lantaldea kanpora ateratzen da grabatzera, lehen Oriora eta orain Tolosara. Horrez gain, ENG bidezko grabazioek hilabetean sei edo zazpi sekuentzia aparteko lokalizazioetan grabatzeko aukera ematen dute, baita sekuentzia bereziak grabatzeko ere: gaueko sekuentziak, istripuak eta gisakoak.

Goenkaleren III. denboraldian —1996/97 ikasturtean— hasi ziren Orioko grabazioak egiten. Hasierako garai haietan 9 ziren lan-jardun horretan grabatzen ziren sekuentziak; gaur egun, ostera, 14 grabatzen dituzte —atal bakoitzeko bi edo hiru sekuentzia—.

Laugarren denboraldian —1997/98 ikasturtean— emisioa 35 minutura luzatu zen. Horretarako bi baliabide erabili ziren: batetik, sekuentziei iraupen handiagoa eman zitzaien eta, ondorioz, atalen erritmoa moteldu egin zen; bestetik, «aurrekoa» eta «hurrengoa» tarteak sortu ziren (atalaren hasiera eta bukaeran aurreko eta hurrengo kapituluen laburpenak biltzen dituzten sumarioak).

25. Dekoratu horietatik bat plato kanpoan eraikitako kanpoko dekoratua zen (*Goenkale kalea*, hain zuzen ere) eta horrela izaten jarraitzen du gaur egun ere.

26. Gogoratu ikerketa honetan atalez hitz egitean, produkzio-atalari egiten diogula erreferentzia, eta ez emisio-atalari, 2006ko urtarrilaz geroztik, atal bikoitzak eskaintzen baitira emisio-egun bakoitzean.

27. Euretari 10 finakoak dira, beste 4 behar direnean jartzen dira —balioaniztun deritzenak—, eta azkena, platotik kanpo kokatuta dagoen *Goenkale kalea*.

ENG bidezko grabazioak VII. denboraldian jarri zituzten martxan. Orduan, baina, ez zegoen errealizazio-talde berezirik grabazio horiek egiteko. ENGetako errealizazio-taldea VIII. denboraldian sortu zen, 2001/02 ikasturtean. Paraleloki lanean diharduen talde hau sortzeak sekuentzia bereziak grabatu eta lokalizazio desberdinak erabiltzeko aukera eman zuen, lan-taldea gehiago zamatatu barik.

Produkzio-sistemari dagokionez, funtsean hasierakoa da: egunean atal bat grabatzen da, aipatutako ENG bidezko sekuentzien grabazioa salbu (bat edo bi atal bakoitzeko). ETBko Miramon produkzio-zentroko goizeko txandako ordutegian —7:30/14:45 bitartean— emisioko batez besteko 30 minutu atera behar dira. Horretarako, produkzioa kate-lanean dago antolatuta. Bakoitzak bere ordutegi eta eginkizuna dauka, eta baten atzerapenak, kate-sistema guztian dauka eragina. Lan-katearen jarduna, ezustekoak tarteko, eten egiten denean, *makineria* guztia presiopean jartzen da lanean, modu batera edo bestera, ezusteko horri aurre egiteko.

Esanguratsuak dira Beobideren hitzak *Goenkaleren makineriari* buruz hitz egiten duenean (komunikazio pertsonala, 2010-04-07):

Ni hasi nintzenean ezin nuen imajinatu hain konplexua eta hain geldiezina zela makineria. Ze, nik orain ezin dut, ez da behar, baina ezin naiz joan gidoi-bilera batera eta esan: «STOP, kapitulu hau gelditu». Ezin da. Fisikoki ezin da. Egin ditzaket gauzak moldatu, dialogoetan hau moldatu, eta barruan hori moldatu, eta postprodukzioan moldatu, baina gelditu, ezin da gelditu. Ze, gelditzen bada ez da iristen.

Egunero atal bat grabatzearen premisa mantentzen bada ere, lan-taldea handitu egin da. Ikertzaileak ezin izan du lan-taldeari buruzko kopuru zehatzik jaso, baina bildutako datuen arabera, 7-8 lanpostu gehiago daude gaur egun hasierako lan-taldean baino: produkzio-taldean, errealizazioan, zuzendaritzan eta atrezzoan sortutako lanpostuak, hain zuzen ere.

Grabaketak jardun osoko lana eskatzen duenez, txandakako lan-sistema ezarri zen hasieratik. Zuzendaritza- eta errealizazio-lanek prestaketa eskatzen dute grabazioa taxuz egin eta platoko orduei ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko. Horrela, arlo horietako kide batzuk grabatzen ari diren bitartean, beste batzuk hurrengo txandako atalak prestatzen ari dira. Txandaka lan egin behar duten errealizazio- eta zuzendaritza-departamentuek izan dute, hain zuzen ere (produkzio-departamentuarekin batera), aldaketa gehien *Goenkaleren* lan-prozesuaren garapenean, hori izan baita aurrekontua asko igo barik *Goenkaleri* txinparta gehiago ateratzeko aurkitu duten modua.

2.3.2. Edukiaren eboluzioa: generoak eta pertsonaiak

Produkzioan izandako aldaketek —sekuentzia-kopuru handiagoa atal bakoitzeko, kanpoko grabazioak, dekoratu gehiago tramak garatzeko eta abarrek— eragina daukate, nola ez, edukian eta ikusleak jasotzen duen emaitzan. Istorioak garatzeko orduan, aukerak zabaldu egiten zaizkie gidoigileei grabazio-lekuak kopuru aldetik handitu eta aniztasunean irabazten den heinean. Konplexutasunak produkzioa zaildu egiten du; haatik, konplexutasun hori da edukia aberastu eta hobetzeko giltza nagusia.

Bestalde, *Goenkalek*, telenobela formatuan oinarritutako produkzioa izaki, bi ezaugarri nagusi ditu: korala da, eta genero asko jorratu eta nahasten ditu. Bada, bi ezaugarri horiek dira edukiari aldaketa nabarmena ekarri dioten beste aldagaiak.

Duque eta Blancok bat egiten dute baieztatzean generoari dagokionez, *Goenkale* kostunbristagoa zela lehen, eta orain, berriz, intriga gehiago daukala. Aldaketari buruzko arrazoieta ere iritzi berekoak dira: telebistako eskaintzaren panorama asko aldatu da, eta audientzien lehian ezinbestekoa da aldaketa hori. Honela dio Duquek:

Oraintxe bertan ezin izango ginatke lehiatu duela hamabost urteko *Goenkale*-rekin, gaur egun telebista dagoen bezala eta telebistan dauden telesailekin. Ezinezkoa litzateke. (...) Kostunbrismoa kendu genuen lehiatu ahal izateko, baina jendea zenbait gauzarekin zelan nekatzen den ere ikusten duzu; orain intriga gehiago dago, misterio gehiago, drama gehiago. Genero asko sartzen ditugu, generoen nahasketa dago, hori hasieratik izan du *Goenkalek*: maitasuna zeukan, drama eta intriga. (...) *Reality*-en *boom*-a hasi zenean, *Gran Hermano*-rekin lehiatu behar zen... oso zaila zen. Lehen nahikoa izan zitekeen sartzea lau pertsonaia, jendearentzat identifikagarriak ziren lau gauza, bere kulturarekin identifikatzen zituenak, nahikoa zen. Baina urte batzuk geroago, horrek ez zuen jada balio²⁸ (Duque, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Blancok, gainera, intriga gehiago sartzearen arrazoia emisio-aldaketarekin lotzen du:

Fikzioa, oro har, asko aldatu da 16 urte hauetan: bere boladak eduki ditu, modak eta gustuak. *Goenkale* hasi zenean oso fikzio gutxi egiten zen Espainian, eta orain pila bat. Horregatik, zu behartuta zaude, pixka bat, zure produktua aldatzera. Orain *Goenkalen*, agian, intriga gehiago dago; umorea baztertu egin da. Ez da gauza bera ere lau egun emititzea edo bi; beste osagarri batzuk behar dituzu fideltasuna mantentzeko. (...) Intriga behar duzu; oso ondo dosifikatu behar duzu intriga hori, jendea hor mantentzeko astez aste. Asteartetik hurrengo asteartera arte, tarte handia dago. Horregatik oso ondo markatu behar dituzu mugarriak (Blanco, komunikazio pertsonala, 2010-03-23).

Izaera koralarri dagokionez, fikzio bat korala izan arren, beti ditu pertsonaia batzuk protagonistak direnak, eta hori gertatzen da, baita ere, *Goenkaleren* kasuan. Duqueren esanetan, protagonistek trama nagusiak sostengatzen dituzte, eta trama horiek denboraldi osoa irauten dute. Haren ustez, 3 edo 4 pertsonaia nagusi izan behar dituzu hainbat denboralditan; hori egin ezean, *Goenkaleren* marka galtzeko arriskua legoke: «Bestela, denboraldi bakoitza telesail desberdin bat izango litzateke»²⁹ (Duque, komunikazio pertsonala, 2010-03-23).

Bada, *Goenkale* sostengatzen duten pertsonaiei erreparatuz, Duquek hiru aro bereiziko lituzke *Goenkalen*: lasatarren aroa, Maria Luisaren aroa eta madariagatarrena. Horrez gain, Leonorren papera ezinbestekotzat jotzen du Maria Luisa eta madariagatarren aroen artean zubi-lana egiteko, Maria Luisa bezalako pertsonaia

28. Ikertzaileak itzulitako aipua.

29. Ikertzaileak itzulitako aipua.

garrantzitsu bat desagertu eta istorioari ondo eutsi ahal izateko (Duque, komunikazio pertsonala, 2010-03-23).

Garai edo aro hauek denboran kokatzeko orduan, lausoa da lasatarren eta Maria Luisaren arteko aro-aldaketa, ez dagoelako aldaketa eragiten duen gertakari zehatzik. Duquek, Jose Mari eta bere anaiaren arteko liskarra aro horretan kokatzeaz gain, Xabier eta Gaizkaren ingurukoak ere sartzen ditu; 5 urte inguru orotara. Ondoren, esan bezala, Maria Luisaren aroa letorke, haren heriotzaraino luzatuko litzatekeena, hau da, XIV. denboraldira arte. Garai horretan Maria Luisaren sendia zabaldu egin zen, bat-batean ezagutzen ez zitzaion alaba Julia agertu baitzen Arralden. Pertsonaien sailkapenaren araberrako hirugarren aroa madariagatarrena da. XV. denboraldian hasi zen aro hau, eta, dagoeneko amaitu den XVII. ikasturtea familiaren hirugarrena izan da.

Edukiaren eboluzioan, ezin aipatu barik utzi pertsonaiei bizia ematen dien aktore taldea: nabarmena da urteen poderioz irabazitakoa, bai *Goenkalen* mantentzen diren aktoreek hartu duten eskarmentuagatik, bai garai batean adin-tarte bateko pertsonaientzat zeuden arazoak konpondu direlako, euskarazko fikzioaren hasierako aktore gazteak heldutasunera iritsita, pertsonaia helduen papera bete dezaketelako.

Hortaz gain, aktore onak izateko taktika bat erabili du *Goenkalek* azken bi urte hauetan. Iraupen luzeko telesaila izanik, eta kontuan hartuta, gainera, adin zehatz bateko aktore euskaldunen kopurua mugatua dela, beste arazo bati aurre egin behar izan dio saioak. Urteetan hainbat pertsonaia pasatu dira *Goenkaleren* istorioetatik, eta batzuetan pertsonaia horiek berreskuratzen diren arren, beste askotan amaitu egiten da pertsonaiaren ibilbidea.

Bada, azken bizpahiru urteotan apustu bat egin dute *Goenkaleko* taldeak eta ETBk: garai batean pertsonaia baten paperean agertu zen aktorea berreskuratu dute beste pertsonaia baten papererako. Hau izan da, adibidez, Martxelo Rubioren kasua. Olatz Beobideren esanetan, beldurra zuten ikusleak nola hartuko ote zuen hau, eta nahiz eta hasieran foroetan *trikimailu* horren inguruko protestak izan, ikusleak onartu egin du eta beste edozein pertsonaia besteko sinesgarritasuna dauka Rubiok bere paperean. Edozelan ere, Beobidek taktika hau defendatzen duen arren, garbi dauka kasu puntualetara mugatu behar dela (komunikazio pertsonala, 2010-04-07).

2.3.3. Emisioaren eboluzioa eta produkzioan eragindako aldaketak

Goenkale beti izan da *prime time*an programatu den saioa, nahiz eta hasieran bazkalosteko ordutegian ere errepikatzen zen. Maiztasunean, berriz, aldaketa bi izan ditu emisioan. Ikus dezagun, bada, zeintzuk izan diren aldaketa horiek eta euren arrazoiak.

Lehenengo hamar denboraldietan, *Goenkale* astelehenetik ostiralera emititzen zen 21:30ean. Baina XI. denboraldiaren hasierarekin, 2004.eko irailaren 27an, astean lau eguneko emisiora pasatu zen, astelehenetik ostegunera bitartean. Joselu Blancoren arabera, murrizketa honen arrazoiak ekonomikoa izan zen (Blanco, komunikazio pertsonala, 2010-03-23).

Aldaketa horrek denboraldian kontratatzen den kapitulu-kopurua jaitsi egin zuen: denboraldiko batez beste 200 atal sinatetik 169ra³⁰ pasatu zen. Murrizketa horrekin, gainera, denboraldia, emisioari dagokionez, luzatu egin zen: astean 5 egunetan emititzen zenean, 200 atalekin 40 aste betetzen ziren; astean 4 egunetan emitituz, 180 atalekin, emisio-denboraldia 45 astera luzatu zen.

Dena den, emisio-murrizketak ez zion produkzio-moduari eragin: astean bost eguneko lan-jardunean, bost atal grabatzen jarraitu zuten; haatik, grabazio-egutegia, eta, ondorioz, lan-taldearen kontratazio-denbora, laburtu egin zen, kapitulu gutxiago produzitu behar zirelako.

Hamabigarren denboraldia abian zela, 2006.eko urtarrilaren 9an, *Goenkaleren* emisioak izan duen bigarren aldaketa egin zen: astean lau egunetan emitituzetik, astean bi eguneko emisiora pasatu zen, eta egun horietan bi atal jarraian ematen hasi ziren. Aldaketa horren arduraduna Joselu Blanco izan zen, eta arrazoi nagusia, berriz ere, ekonomikoa izan zela dio:

Goenkalek eguneroko emisioan ez zuen ezer betetzen. Gaueko hamarretan hutsetik hasi behar genuen, eta ordurako diru guztia gastatuta geneukan, fikzioa oso genero garestia delako. Orain gau bi betetzen dira daukan aurrekontuarekin, baina bi gau horiek osatu egiten dira. (...) Gero beste arazo batzuk zeuden, egun askotan, saskibaloiatatik, futbogatik... programaziotik atera egiten zen. Ikusteko ohitura ere galtzen ari zen. Egonkorrak ziren egunetan emititzea behar genuen, astelehen eta astearte gauetan (normalean ez zegoelako kirolik eta ez zuelako programaziotik salto egiten), *Goenkaleren* jarraitzaileek ikusteko aukera izan zezaten programazioan saltorik izan gabe, bestela azkenean galdu egiten da ikusteko ohitura³¹ (Blanco, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Ikusleari begira aldaketa handia izan zen programazio-eskaintza berri hori, eta zalantza asko sortu zituen audientzietan izango zuen eraginean, baina estrategia-aldaketa horrek emaitza onak izan zituen. Izan ere, *Goenkale* da euskarazko telesailen artean gehien ikusten dena. Eta, emititzen den egunetan, bigarren aukera da ikusle euskaldunentzat (Blanco, komunikazio pertsonala, 2009-05-14).

Emisio-aldaketa hori produkzioa martxan zenean proposatu eta eginikoa izan zenez, produkzio-sistema berarekin jarraitu zuten: 35 minutuko atalak idatzi, grabatu eta postproduzitzen ziren; ETBk atal horiek jasotzen zituen, eta bata bestearen ondoren emitituz, 70 minutuko saioa eskaintzen zuen.

Gaur egun ere, Euskal Telebista eta Pausokaren arteko kontratuan, 35 minutuko atalak dira sinatzen direnak. Ikusleari, aldiz, batez besteko 70 minutuko atalak eskaintzen zaizkio. Horrek esan nahi du 2010.eko uztailaren 5ean 3.000. atala emitituko zutela iragarri zuenean ETBk, atal horren zenbaketa produkzioari begirakoa zela, eta ez emisioari zegokiona.

30. Datu hau emisio-aldaketa egin zen denboralditik aurrerako ikasturteen batez bestekoa da. Aldaketa egin zen denboraldian, adibidez, 160 atal sinatu ziren; XVI.ean, aldiz, 180 izan dira sinatutakoak.

31. Ikertzaileak itzulitako aipua.

3. Ondorioak

Euskarazko telebistako fikzio seriatuan bide luzea egin da XX. mendeko azken hamarkadan lehen fikzio seriatuak ekoitzi eta emititu zirenetik: profesionalek jardunean ikasi egin dute, eta nabaria da hobekuntza azken emaitzan —konparatzea baino ez dago hasierako telesail bat gaur egun egiten den batekin, edota *Goenkale*ko hasierako atal bat azken uztako batekin—. Haatik, euskarazko telebistako fikzio seriatua ekoitzi eta eskaintzeko panorama ez da batere hobetu: ekonomikoki ahalegin handia da Euskal Telebistarentzat, eta, audientziek agintzen duten telebistako merkatuan, askoz ere baliabide handiagoak dituzten gaztelaniazko fikzioekin lehiatu behar du.

Euskal Irrati Telebista sortzeko legean idatzita dago komunikazio-taldearen helburuetariko bat dela euskara bultzatu eta garatzea, eta helburu hori gerora ere berretsi egin izan da 1992an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak idatzitako txosten batean zein 2000. urteko EITBren Plan Estrategikoan.

Kantitateari dagokionez, Euskal Telebistak gehiago inbertitu du euskarazko fikzio seriatuan gaztelaniazkoan baino: XXI. mendeko lehen hamarkadara arte Euskal Telebistak 36 fikzio seriatu ekoitzi eta emititu ditu: 23 euskaraz, 12 gaztelaniaz eta bat mutua.

Fikzio seriatu bakoitzean ekoitzi eta emititutako atal-kopuruari eta emisio-maiztasunari begira ere, euskarazko tituluak nagusitzen dira nabarmen: 4 dira 100 ataletara iritsi diren euskarazko fikzio seriatuak (*Goenkale*, *Hasiberriak*, *Benta Berri* eta *Martin*³²), eta bakarra gaztelaniaz (*Mi querido Klikowsky*); bestalde, gaztelaniaz ekoiztako telesail guztien emisio-maiztasuna astean behinekoa izan da, eta euskarazkoetan, oster, 3 izan dira astean 2, 4 edo 5 eguneko maiztasunarekin emititutakoak (*Goenkale*, *Hasiberriak* eta *Benta Berri*).

Euskal Telebistaren bi hizkuntzen arteko konparazioan euskarazko eskaintza gailentzen bada ere barne-produkzioko fikzioari dagokionez, fikzio seriatuaren ekoizpenak baliabide eta parametro zehatz batzuetara egokitu behar du, eta ikerlan honen emaitzetan aipaturiko muga erreal horiek baldintzatu egiten dute eskainiko den produktuaren edukia eta kalitate teknikoa.

Muga horien barruan fikzioa zelan ekoizten den ezagutzeko *Goenkale* saioaren kasu-azterketa egin da; bada, ikerlanean jasotako emaitzek garbi uzten dute *Goenkale* beti ekoitzi izan dela Euskal Telebistak euskarazko fikzio seriatua eskaintzeko dituen muga barruan: familia osoari zuzendutako fikzioa da, eta atal bakoitza ekoizteko baliatzen dituen aurrekontu eta grabazio-egunen baldintza betetzen du. Gainera, audientziari dagokionez, emaitza onak lortzen ditu emititzen den egun eta orduetan, euskaldunen artean bigarren aukera baita.

Bigarren aukera izate hori ez da berez etorri; unean uneko premiei egokitze aldera hartu diren erabaki batzuen ondorio izan da: lau eguneko emisiotik bi eguneko emisio bikoitzera pasatzea, kostunbrismoa alde batera utzi eta intriga-tramei leku gehiago egitea eta, azkenik, istorioetan elementu berritzaileak sartze

32. Ekoitzi eta emititutako atal-kopuruaren arabera ordenatuak.

aldera pertsonaia nagusien nukleoa aldatzea (ikus 2.3.2 atalean Maite Duquek *Goenkaleren* hiru aroez dioena).

Goenkale euskarazko telefikzioaren mugen barruan ekoitzi izanaren gaira itzulita, ezinbestekoa da kontuan hartzea telesail horren izaera berezia: eguneroko fikzio seriatu izaerarekin sortu zen, eta gaur egun ere produkzio-sistema berari eutsi dionez, aurrekontu eta grabazio-egunen baldintza erraz betetzen du. Kontuan izan behar da aipatutako mugak asteroko izaera duten fikzio seriatuentzat ezarritakoak direla.

Goenkaleren eguneroko izaera da, hain zuzen ere, ikerlan honen mugetariko bat. Horregatik, asteroko produkzio-sisteman diharduten telesailak direnez identifikatutako baldintzetan lan egiteko zailtasun gehien izan dezaketen produkzioak, aurrera begirako ikerlanetan komeniko litzateke asteroko telesail hauen azterketa egitea.

Gainerakoan, euskarazko fikzio seriatuaren gaira itzulita, badirudi Euskal Telebista etengabeko borrokan ari dela kateen arteko audientzien lehia datu onak lortzearen eta bere sorrerako helburuetariko bat den euskararen normalizazioaren artean. Euskarazko telefikzioak zail du lehiatzea, eta hein batean ametitu egiten zaio beste kateekin alderatuta audientzia-datu txikiagoak lortzea, baina audientziaren mamua beti dago hor.

Ikerlanaren puntu honetan, galdetzekoa da ea hizkuntza gutxituen kasuan ere dena irizpide kuantitatiboan arabera ebatzi behar ote den. Ea, berbarako, audientzia-datuak euskarazko fikzio seriatua jasotzeko eskubidearen gainera egon behar ote diren. Izan ere, ikus-entzunezko komunikabideek garrantzi estrategikoa daukate edozein hizkuntza-komunitaterentzat. Ekar ditzagun gogora Francesc Escibano *Televisió de Catalunya*ko zuzendariaren hitzak:

Ikus-entzunezkoen sektorea sektore estrategikoetariko bat da edozein herrirerentzat. Ez bazara gai ikus-entzunezko edukiak sortzeko zure hizkuntzan eta zure kode kulturetan, ez zara existitzen XXI. mendean. Ezinbestekoa da ikus-entzunezko industria izatea, bestela ez zara nazio³³ (Escibano, in Corbella; Gifreu, 2008: 397).

Escibano ikus-entzunezko eduki oroz ari bada ere, Saizarbitoriaren hitzak aipatzen ditu Muñozek dioenean euskaldunok kontatu behar dugula zineman gure historia. Telebistako fikzioarentzat ere balio lezakete hitzok: «Ez dakit zergatik ez diogun geure bizitzak ausardiaz kontatzeari ekiten, gure euskaldun historiak, gure nazionalista historiak nahi bada, guk ezean, beste batzuek kontatuko baitituzte, eta ez zaigu gustatuko nola egingo duten» (Saizarbitoria, in Muñoz, 2004: 45).

ETBko programazio-buru Joselu Blancok dio (komunikazio pertsonala, 2009-05-14) normala dela Euskal Telebistak euskarazko fikzioa gaztelaniazkoari lehenestea, ETBk egin ezean ez duelako inork egingo. Ikertzaileari datorkion galdera da ea Euskal Telebistak politika berberarekin jarraituko ote duen aurrerantzean, eta ea nahikoa ote den orain arte egindako ahalegina eta apustua euskaraz eta euskaldunon kode kulturetan egindako telebistako fikzioa bermatzeko.

33. Ikerlariak itzultitako aipua.

Aurrera begira jarrita, argigarria litzateke bai ETBren politikaren bilakaera aztertzea (Eusko Jaurlaritzarekin dituen kontratu-programak eta EITBren beraren sorrera-legean markaturiko oinarrizko puntuen inguruko eztabaida barne direla), bai Europa Mendebaldeko hizkuntza gutxituetan telefikzioa ekoizten duten beste herrialde batzuen (Katalunia, Galizia, Gales) politikak aztertzea eta alderatzea.

Erreferentzia bibliografikoak

- Alvarez Monzonillo, J. M. eta Lopez Villanueva, J. (1999): "La producción de ficción en España: Un cambio de ciclo (1)", *Zer*, 7.
<<http://www.ehu.es/zer/zer7/monzoncillo67.html>> (kontsulta-data, 2010-09-10).
- Araba, E. (2004): *Programaziogintza irratit-telebistan*, UEU, Bilbo.
- Aristi, P. (2003): *Goenkale*, Azpeitiko Udala, Azpeitia.
- Azpillaga, P. et al. (1996): *Goenkale: telenobela ereduaren moldaketa Euskal Herrian*, ikerketa-proiektu argitaragabea, EHU, Leioa.
- Corbella, J. M. eta Gifreu, J. (2008): *La producción audiovisual a Catalunya 2005-2007*, Documenta Universitaria, Girona.
- Diego, P. (2010): *La ficción en la pequeña pantalla. Cincuenta años de series en España*, Eunsa, Iruñea.
- EITB (2000): *EITBren Plan Estrategikoa*, EITB, Iurreta.
- Frey, L.; Botan, C. eta Kreps, G. (2000): *Investigating communication: an introduction to research methods*, Allyn and Bacon, Boston.
- García de Castro, M. (2002): *La ficción televisiva popular. Una evolución de las series de televisión en España*, Gedisa, Bartzelona.
- Gordillo, I. (2009): *Manual de narrativa televisiva*, Síntesis, Madril.
- Irazu, A. (2001): *Telelilura, 1990-2000. Euskal fikzioa ETBn*, Fundación Autor, Madril.
- Jankowski, N. W. eta Jensen, K. B. (1993): *Metodologías cualitativas de investigación en comunicación de masas*, Bosch, Bartzelona.
- Juaristi, P. (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoría eta adibideak*, EHU, Bilbo.
- Muñoz, J. (2004ko iraila-urria): "Gure euskaldunon historiak", *Jakin*, 144, <http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin04_144/Jakin04_144_041.pdf> (kontsulta-data, 2010-09-20).
- Newcomb, H. M. (1993): "La creación del drama televisivo", in K. B. Jensen eta N. W. Jankowski, *Metodologías cualitativas de investigación en comunicación de masas*, Bosch, Bartzelona, 117-133.
- Olasagasti, E. (2004): "Euskal zinemaren ekoizpena, telebistaren ardura zatia", *Jakin*, 144, <http://www.jakingunea.com/50urte/pdf/Jakin04_144/Jakin04_144_049.pdf> (kontsulta-data, 2010-09-20).
- Prado, E. (2003): "La espectacularización de la realidad", GECA, *El anuario de la Televisión*, GECA, Madril, 178-186.
- Scolari, C. (2008): "Hacia la hipertelevisión. Los primeros síntomas de una nueva configuración del dispositivo televisivo", *Dialogos de la comunicación*, Peru, 77, <<http://www.dialogosfelafacs.net/77/articulos/pdf/77CarlosScolari.pdf>> (kontsulta-data, 2010-01-10).
- TNS (2008): *Anuario de Audiencia de Televisión*, TNS, dvd.
www.eustat.es/estadisticas/idioma_e/tema_159/opt_0/ti_Biztanleria/temas.html (kontsulta: 2010-08-29).
- www.ine.es/jaxi/tabla.do (kontsulta: 2010-08-26).

